

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

HM UDAKO KONTZERTUA

2019ko irailaren 15ean - 18:00 - Albaolan (Pasai San Pedro) - 5 euro

JUAN MARI BELTRAN LAUKOTEA

(Euskal Herria)



Itsasoa, ontziak, marinelak, arrantzaleak eta arraunlarien inguruko historiak eta istorioak aipatzen dituzten doinuen eskutik, kantuz kantu euskal kostaldetik paseo bat egitea proposatzen dugu **Kostaldeko soinuak** izeneko musika proiektu honetan.

Guztira 16 pieza dira, herriz herri jasotakoak, Lapurdiko, Gipuzkoako eta Bizkaiko herri kantutegikoak.

Horietako lau hitzik gabeko dantza doinuak dira: Pasaiko bateleren zortzikoa, Lapurdiko Kaskarote dantza, Mariñelen polka eta Lekeitioko Kaixarranka.

Beste 14 abestien hitzetan hamaika gai ageri dira: ontzietan pasatako goseteak, ekaitzak, tragediak, baleen arrantzatzearen kontakizunak, itsas herrietako gertakizunak, Kristobal Colonen bizitza kontatzen duen bertso sorta, emigrazioa, Ternuara joaten ziren marinelen beldurrak...

Gehienak euskal herri kantutegiko piezak dira, besteak beste XX. mende hasieran argitaratu ziren R. M. Azkueren "Cancionero Popular Vasco" eta Aita Donostiaren "Cancionero Vasco" kantutegietatik hartutakoak. Besteak berriagoak dira; "Pasaiko bateleren zortzikoa" Pablo Sorazabalek Gipuzkoako *Uztai handiko zortzikoan* oinarrituta prestatu zuen dantza doinua dugu, eta "Partida tristea Ternuara" XVIII. mendeko hitz zaharrei guk jarritako doinua.

Laukote talde formatuan, emanaldi honetan ahotsekin batera euskal herri musikan erabili izan diren hainbat soinu-tresnen hotsak entzuten dira, batzuk oraindik erabiltzen direnak eta beste batzuk aspaldian erabilitakoak, hala nola akordeoia, txistu eta danbolina, alboka, klarineta, dultzaina, txalaparta, xirolarruak, zarrabetea, gitarra, panderoa, danborra...

Juan Mari Beltran: txistu-danbolina, zarrabetea, xirolarruak, txalaparta, alboka, dultzaina, klarineta


Errege Belda: akordeoia, ahotsa

Ander Barrenetxea Lasarte: ahotsa, danborra, panderoak, txalaparta, kanabera, arxaluak...

Aitor Gabilondo: ahotsa, gitarra

EGITARAUA

- Pasaiko bateleren zortzikoa
- Ene muthilik ttipiena
- Brodazalearen kantorea
- Kaskarote dantza
- Ontzi bat egin da
- Jeiki, jeiki, etchenkuak
- Milla zortzireun da cincuenta y cuatruan
- Pasaiko herritik
- Ale, arraunean
- Kristobal Colon
- Santulari zetan doan Portugaletera
- Barkora, mariñelak
- Partida tristea Ternuara
- Mariñelen polka
- Itsasoa laino dago
- Lekeitioko Kaixarranka



GREMIO DE MAREANTES

(Galizia)



Gremio de Mareantes herri musika egiten duen hirukote gali-ziar bat da. Laurogeita hamarreko hamarkadatik herrialdeko oholtzetan Chouteira, Obradoiro de Cultura Tradicional Ultraia, Carapaus, Zurrumalla eta bestelako taldeetan joaz ibilbide luzea egiten duten musikariak elkartu dira bertan.

Hirukotearen errepertorio guztiak bere jatorria landa lanean eta XX. mendearen hasieran Casto Sampedro, Perfecto Feijoo, Jesús Bal y Gay, Martínez Torner eta beraien garaikideek utzitako kantutegi zaharretan du.

Kontzertu honetan joko dituzten piezak gai zehatz batek elkartzen ditu: itsasoak. Redondelako itsasgizonen aintzinako gremioak dantzatzen zituen dantza solemneak entzuteko aukera izango da, baita *Os Campaneiros de Vilagarcía* gaitero ospetsuek, gaiteroen belaunaldi eta belaunaldiek jarraitu duten eredia, jotako Ría de Arousa inguruan aditzen ziren *muiñeira* alaiak ere.


Oli Xiráldez: Gaitak, flautak eta zanfona

Gustabo Couto: Perkusioak eta ahotsa

Alex Balbuena: Akordeoak

EGITARAUA

- Valse e Xota de Pazos de Merexo
- Rumba dos cinco mariñeiros
- Foliada de Carril
- Muiñeira de Pazos de Merexo
- Xa fun a Marín
- Pasodobre de pazos de Merexo
- Danza de Espadas de Redondela
- Muiñeira vella de perfecto Feijoo (Pontevedra)
- Xota dos gaiteros de Pontevedra
- Pasodobre do Berbes (Porto de Vigo)
- Danza de Mareantes de Camariñas
- Teño un amor en Rianxo
- Fandango de Pontevedra
- Muiñeira dos campaneiros de Vilagarcía
- Foliada de Cerdedo
- Alalá de Muxía
- Foliada de Baiona



**kontzertu honen
laguntzaileak:**

